



AMA LURRA - (URA)

-1-

Begitu ta begituz
batetik bestera,
egazkada egin dot
erri danetara:
lurretik urrinera
urrindik lurrera,
amaitu barik nator
neure ikusmira,
Ama Lurrak niretzat
daukani begira.

-2-

Arrigarria guztiz
aurkitu dodana
ainbeste sorkari ta
izarren andana.
Zenbatu ezin bada
orko jende dana,
naiezta be izan bear
andi ta bakana,
bizi diran guztiek
etxetzat dabena.

-3-

Etxe orren barruan
bizirik sartzeko,
ur tanta bat naiko da
ondo jarraitzeko.
Ama Lurrak, orretan,
bildurrik eztauko
urezko ume pilla,
lurrera ekarteko,
batzuk dezagertuta,
barriak sortzeko.

-4-

Sarritan jausten jakoz
euri saparradak,
batzutan zirimiri
askotan ekaitzak.
Sortzen ditu, beingoan,
erreka ta ibaiak,
ur laster ta putzuak,
baita iturburuak,
danak iruntsi arte,
itxaso zabalak.

-5-

Arri ta egurretan
naiz gizakietan,
euneko larogei da
ura, oñarrrian.
Zugaitzak susterretan
biziak agoan,
ba dabe non ipiñi
ura seguruan,
azi ta garatuaz
taiutu artean.

-6-

Ama Lurra dogunez,
Ama maitatia,
damosku edateko,
betiko bizia.
Sikarreko putzuan
dauko iturria,
oparo ixurtzen dauan
zerutar grazia,
bein betiko asetuz
barruko egarria.

Munetxek

Bil.-2010.X.11

olerkia